

noaua

**Konpost Egunak,
Hernanin eta Usurbilen**

**DYako Nagore Maizekin
solasean izan gara**

**Usurbil FT-ko taldeak,
lehiarako prest**



Aukeran, bizikletan



 **URTINEA
LORATEGIA**

•Santu guztien eguna

Erramuak, zentruak,
koroak eta landaretan
aukera zabala hemen
aurkituko duzu.

Egun osoan zehar zabalik!



Egun osoa irekia •San Esteban auzoa ☎ 943 362 255 Faxa: 943 366 054 • urtinea@urtinea.com

PSU
serigrafia

serigiosu@serigrafiaiosu.com

- kamiseta inprimategia
- pegatinak
- iragarki nahiz industri serigrafia
- laneko arropak
- enpresa opariak
- boligrafoak
- txiskeroak
- laser markaketak...

www.serigrafiaiosu.com

Ugaldea polig. 36 tel: 943 371954 USURBIL


OGI BERRI
ARTISAU OKINAK

**ETA ORAIN...
IKUSI FUTBOL
PARTIDUAK
GUREKIN!**



egunero 06:00tik 21:00ra (asteburutan ere)

PUNTAPAX KALEA 16 (ARTZABAL)

Albisteak iruditan

Erakusketa mikologikoa

Gehienak denbora pasa, ibilaldia egin eta naturaz gozatzeko aldera joaten dira, beste asko perretxikoek sukaldaritzarako eskaintzen dituzten aukera bikainengatik, eta bakarren batzuk mikologiarako zaletasun hutssez. Perretxikoak biltzeko garaia ez daki gu oparoa izaten ari den, baina jardunaldi mikologikoak ugari izan dira azken egunetan. Baita gurean ere. Usurbilgo Txapeldunek eta Hernaniko Zuñigak perretxiko erakusketa antolatu zuten aurreko igandean, Muna Lurrako plazan. Eguraldia lagun, perretxiko, mineral zein fosil erakusketaz gozatzeko aukera izan zuten bertaratu ziren guztiek. Egunerako propio eginiko pintxoak ere prestatu zituzten Txapeldun tabernakoek.



Muna Lurrako plazan ikusgai ipini zituzten perretxiko, mineral eta fosilak.

Laburrean

Asteburu honetan, ordu aldaketa

Neguko ordutegira egokitzeko unea heldu da. Larunbatetik igande goizalderako 3:00etan 2:00ak izango dira. Erlojuak beraz, ordubete atzeratu beharko ditugu. Atsedean hartzeko nahiz parrandarako ordubete gehiago beraz, asteburu honetan. Eta hortik aurrera, gau orduak luzatu eta egunak moztzen joango dira.

1952 jaio zirenen kinto bazkaria

Hau da ekarri diguten oharra: "eguerdiko 14:00etan Atxega jauregian batuko gara, abenduaren 1ean. Ordaindu beharra 35 euro izango da eta izena emateko epea azaroak 22 ostirala izango da. Telefonoa: 943 361380 Kontxi. Neska-mutil, animatu egun eder bat ospatzeko, bi egun gelditzen zaizkigu-eta".

1973koen kinto bazkaria

1973an jaiotako kinto bazkaria azaroaren 23an ospatuko dutela iragarri dute, 14:00etan Atxega jatetxean. 12:00ak aldera Bordatxon elkartuko dira, hamaiketako dastatzeko.

Izena emateko, idatzi email bat azaroaren 15a baino lehen, usurbil1973@hotmail.com helbide elektronikora.

noaia

Kultur Elkartea
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkarte@noaia.com /// www.noaia.com
Jendaurreko ordutegia: 10:00-14:00 / 16:00-19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:
Ana Aizpurua.

Aldizkariko koordinatzailea:
Imanol Ubeda.

Idazkaria: Aizpea Aizpurua.
Publizitatea: Bea Alda,
publizitatea@noaia.com.

Diseinu berria: Erroitiz S. L.

Erredakzio kontseilua,
erredakzioa@noaia.com:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte,
Aizpea Aizpurua.

Banaketa: Olatz Rezola, Arantxa
Zulaika.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria,
Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria
Jesus Urbietta, Maddi Galbete,
Ana Urdangarin, Maddi Zaldua,
Iñaki Larrañaga, Pako Agudo,
Jon Etxabe, Alazne Begiristain,
Denis Elortza, Pello Aranburu,
Xabier Aranburu, Inma Balda,
Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi,

Maialen Unanue, Ugaitz Agirre,
Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia
Torregarai eta Udarrégi ikastola.
Tirada: 2.800 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.
Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Idoia Torregarai

Amatasun-zunba

Udako oporren ondoren hainbat ikastaroetan izena emateko aukera izaten dugu: esku-lanak, dantza, igeriketa, pilates... Beti nahi izaten dut horietako batean izena eman, hori bai, kirolarekin loturarik ez duen batean. Eta zergatik kiroltara ez? Gustatzen ez zaidalako? Ez. Alor horretan nire metodo propioa jarraitzen dudalako: amatasun-zunba. Ez duzue eza-gutzen? Praktika honen bitartez, egunerokotasunean konturatu gabe mantentzen da linea. Pentsa, txandala ere ez duzu jantzi behar! Harri-

garria, ezta? Hauexek dira metodo honen oinarri nagusiak:

Ariketa kardiobaskularrak:

Egunero seme-alabak Haur Eskolara, Ikastolara, gimnasiara, bilerara, inglesera, erosketetara eraman beti bost minutu falta zaizkizunean. Korrika-saio horiekin kaloria asko erre eta zure birika-ahalmena areagotuko duzu. Ariketa hau ere parkean zaudela primeran praktikatzeko da, adibidez, merienda hartzeko zure txikiaren atzetik zoazenean egiten dituzun kilometro mordoarekin.

Besoen tonifikazioa:

Negarrez galtzetatik tiraka daukazu bi urteko semea besoetan hartu eta egiten zabilen zeregin guztiak jarraitu egiten (erosketak eta etxearen garbiketa, adibidez). Ariketa aurreratu bezala, txikia besoetan duzula, bost urteko alaba ere gainean hartuko duzu (hau ere mainan egiten ari dela).

Hankak tonifikatzeko:

Oraintxe azaldutako pausoak jarraituko ditugu, baina txikiari erori zaion txupetea edo dagokion objek-

tua hartuz.

Elastikotasuna:

Egunean gutxienez bi aldiz etxe guztitik zehar sakabanatuta dauden jostailu, oinetako eta arropak jasoko ditugu hankak tolestu gabe. Modu berezian landuko dugu gerriko elastikotasuna eta honi esker, edozein herriko festetako lokotx-biltze txapelketetan parte hartzeko bidea emango digu. Ez al da zoragarria?

Beno, hobeto pentsatuta, hurrengo urtean yogan hasiko naiz...

Luken Arkarazo | Aritz Gorriti | **Idoia Torregarai** | Luis Aranalde | Joxe Piñas | Maialen Unanue | Imanol Ubeda | Nerea Zinkunegi

Euskaraz bizitzeko teknikak ikasteko aukera

Sarrera hitzaldiarekin hasiko da ostiralean, Nafartarrak Elkar-teak antolaturiko TELP ("Taller d'espai lingüístic personal") ikastaroa. Gemma Sangines Valentziako Psikologia Unibertsitateko irakasleak gidatuko du ikastaroa. Lankide Ferran Suayrekin batera sortu zuten tailer hau. Egunerokoan, euskara ahalik eta gehien ahotan hartzen ikasteko tresnak, baliabideak eskainiko ditu.

Urriaren 25era arte eman daiteke izena. Tailerlean apuntatzeko Potxoenean joan edo aihert@gmail.com helbidera email bat bidali. Partaidearen izen abizenak, emaila eta telefono zenbakia adierazi beharko dira, apuntatzerakoan. Prezioa, 25 euro. Kutxabankeko ordainagiria ere aurkeztu beharko da.

Ordainketak, Kutxabankeko kontu korrante zenbaki honetan egin beharko dira: 2095 5069 02 1063804198. Urriaren 25eko sarrera-hitzaldian parte hartzen duenari, tailerreko dirua itzuliko diote.

"Euskararen errelatoa"

Euskara hizpide izango duen beste ekitaldi bat ere antolatu du Nafartarrak Elkar-teak. Joxe Manuel Odriozola euskaltzale pasaitarrak, "euskararen errelatoa" egingo du ostegun honetan, urriaren 24an eskainiko duen hitzaldi-solasaldian. Hona hemen Nafartarrak Elkar-teko egunotarako deitu dituzten hitzorduak:

Urriak 24, osteguna

19:00 Hitzaldi-solasaldia Potxoenean, Joxe Manuel Odriozolarekin.



Gemma Sanginesek gidatuko du ikastaroa.

Urriak 25, ostirala

19:00 TELP ("Taller d'espai lingüístic personal") tailerrari loturiko sarrera-hitzaldia Sutegin.

Urriak 26, larunbata

9:00-13:00 / 15:00-19:00 TELP tailerra Potxoenean. Antolatzailea: Nafartarrak.

JUANTXO
BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8
943 370 008

TAXI 24h
Jose Etxabe USURBIL

677 37 34 66
943 36 21 78

Kima
MASAJE LEKUA

· KIROL MASAJEA · MASAJE TERAPEUTIKOA
· KOLONAREN HIDROTERAPIA

Nagusia 44, behea LASARTE-ORIA 943 36 61 97

“Aitzaga arriskuan dugu eta defendatu behar dugu”

A bian da Espainiako Auzitegi Nazionalan, Ezker Abertzaleko 36 ordezkari eta 110 herriko taberna edo elkarteren aurkako epaiketa; tartean da, Aitzaga Elkarte. Urriaren 17an hasi zen, hilabete dezentetan luzatuko dela aurreikusten da.

Epaiketa hasierarekin batera abiatu ziren mobilizazioak ere. Lehen saioaren inguruko azken orduaren berri eman zen iragan urriaren 17an iluntzean, Mikel Laboa plazan. "Aitzaga aurrera! Epaiketa politikorik ez!" edota "Libre" zioten pankarten bueltan bildu ziren hamarnaka herritar. Hain zuzen, "Libre" izeneko ekimen zabalago baten baitan deitu zen aurreko asteko mobilizazioa, baita hurrengo egunotarako iragarri diren beste hainbat hitzordu ere

Sinadura bilketa

Epaiketa politiko gehiagorik izan ez eta epaiketon artxibatzea eskatzeko besteak beste, sinadura bilketa kanpaina bat ere abiatu dute. Aipatu elkarretaratzerara bertaraturiko hainbat herritarrek, "Libre" ekimenaren baitan prestatu den manifestua sinatzeko aukera izan zuten. Aurrerago deitu diren ekimenetan ere sinatzeko aukera egongo da. Honela dio manifestuak:

"Adierazpen honekin bat egiten dugunok, urteetan zehar eman diren makro-epaiketetan, aniztasun politikoa ezabatzeko ahalegin garbia ikusten dugu, lan politikorako askatasun eta ideia guztien defentsarako eskubideen urraketa eman dela, alegia.

Udazken honetarako aurreikusita dauden bi epaiketa hauek, eta jarraian burutuko direnak testuinguru berean emango direla kontuan hartuta, garai berria zabaltzeko Euskal Herriak agertu duen erabakiari eraso egiten diete, konponbide bakesua blokeatu asmoz.

Honela, uztailaren 8an eremu desberdinetako hainbat profesionalak aurkeztutako ekarpena kontu-



Epaiketa hasi zen egunean elkarretaratzea egin zen Mikel Laboa plazan.

'LIBRE' EKIMENA

Epaiketek "garai berria zabaltzeko Euskal Herriak agertu duen erabakiari eraso egiten diete, konponbide bakesua blokeatu asmoz"

tan hartuta, bertan jasotzen diren bost puntu hauekin bat egiten dugu:

- Ez daitezela epaiketa politikorik gehiagorik egin.

- Eskandaluzko instrukzio bidegabean oinarritutako epaiketa guztiak artxiba daitezela;

- Prozedura judicial guztietatik etsaiaren zigor zuzenbidearen aplikazioa desager dadila;

- Aniztasun politikoa eta elkartzeko adierazpen nahiz askatasun politikorako funtsezko eskubideak baldintzarik gabe errespetatu daitezela;

- Elkarbizitza demokratikorako oinarri sendoak ezar ditzagula".

Bilborako autobusa

Mobilizazio gehiago izango dira asteotan. Lehena, larunbat honetan, manifestazio nazionala 17:30etan Bilbon. Autobusa antolatu dute Usurbilen Bizkaiko hiriburura joateko. 15:30ak aldera aterako da Bordatxo ondoko errotondatik. Izen ematea, ohiko lekuetan.

Urriak 26, larunbata

17:30 Manifestazio nazionala Bilboko Jesusen Bihotzetik hasita, "Konponbidearen alde. Eskubide guztiak. Libre. Epaiketa politikorik ez" lemapean.

Urriak 29, asteartea

18:00 Mozio aurkezpena, osoko ohiko bilkuran.

Azaroak 1, osteguna

Goizean, LIBRE gunea, Aitzaga Elkarteak antolatuko duen artisautza azokan.

Oharra: antolaketa lanetan parte hartu edo ekarpenik egin nahi duenak, astelehen arratsaldero 19:00etan bilera Aitzaga Elkartearen. Informazio gehiago: libre.epaiketarikez.org, facebook.com/libre.usurbil, @LibreUsurbil edo libreusurbil@gmail.com

Ostiral honetan, elkarretaratzea

Presoen eskubideen aldeko azken ostiraleko mobilizazioa, ohiko bezala, urriaren 25 honetan, 20:00etan Mikel Laboa plazan. Estrasburgo 197/2006 doktrinaren aurka agertu ondorengo mobilizazioa izango da. Doktrina honen eraginpean, espetsxean jarraitzen du Ramon Uribe kalezartarrak.

Odol ematea, azaroaren 4an

Datorren saioa azaroaren 4rako antolatu dute, 18:00-20:30 artean anbulatorioan. Deialdia, bi hilerro moduan, Usurbilgo Odol Emaitzen Elkarteak egina du.

Gripearen aurkako txertaketak

Zubietan, Santuenean eta Aginagan gripearen aurkako txertoa jasotzeko aukera egongo da egunotan. Informazio gehiago eta izen ematea anbulatorioan, edo bertara deituta, 943 36 20 13. Txertaketa hitzorduak, hauek:

Urriak 23, asteazkena

15:00-17:00 Santuenean, auzo elkartean.

17:00-18:30 Zubietan, Kaxkapen.

Urriak 30, asteazkena

15:00-17:00 Aginagako Arrate Zahar Egoitzan, tailerrak egiten dituzten lekuan.

Autobus zerbitzua hobetzeko inkesta

Udalak gai honi lotuta banatu duen orrialdea bete, eta urria amaitu baino lehen postontziotako batean utzi daiteke:

- Kaxkoan: udaletxeko erregistroan eta anbulatorioan.

- Aginagan: Arrate egoitzan.

- Santuenean: auzo elkartean.

- Zubietan: Herri Batzarreko postontzian.

Oharra: inprimakia jaso ez duzuenok, gune horietan ere eskura daiteke. Bestela, sartu www.garraioahobetzen.net/eu/ web orrialdean eta galdetegia bete.

Zubietako Lanbide Eskolaren oharra

2012an Zubietako Lanbide Eskolan ikasketak amaitu zituztenak tituluak jasotzeko moduan daude. "Erdi eta goi mailako tituluak iritsi dira eta jasotzeko prest daude. Jasotzeko ordutegia: 9:00tatik 14:00tara".

Konpost Egunak, Hernanin eta Usurbilen

Atez Ateketik Zero Zaborrera izeneko jardunaldien hirugarren edizioa antolatu dute, Usurbil, Hernani eta Gipuzkoa Zero Zabor taldeek egunotarako; ostegunerako, urriaren 24rako mahai ingurua Hernanin. Eta igande goizean, erakusketa Usurbilgo frontoian. Bi ekimenok elkar lotuta daude, bi hitzorduek konpostatzea izango baitute ardatz nagusia.

Geroz eta pisu handiagoa hartzen ari den gaia da konpostatzearena, antolatzaileek honi buruz hausnartzeko beharra ikusten zuten, eta hortik sortu da, Hernanin mahai-ingurua osatzeko aukera. Saioa herritar orori zuzendua egon arren, ingurumen arloa lantzen duten teknikari edota udal ordezkarietara zuzendua egongo da bereziki.

Eta igandean konpostatze egitasmoak kalea hartuko du, goizean eta eguerdian zehar bisitatu ahal izango den erakusketa batekin frontoian. Besteak beste, udaletxe ondoran laster martxan jarriko duten auzokonpostatzeko gune berriaren muntaketa lanak nola amaitzen dituzten zuzenean ikusteko aukera eskaini nahi dute antolatzaileek igandean. Laster, Kaxkoko hainbat bizilagun hasiko da bertan, organikoa konpostatzen. Auzolanean, udalerriko beste hainbat guneetan egiten ari diren moduan.

Herritarren herena, organikoa konpostatzen

Usurbilgo sendien artean, hirutik batek, etxean sortzen duen organikoa bere kabuz landu eta konpostatzen du. Etxean lur saila duenak auto-konpostatzearen bidez; eta lurrik edo lekurik ez duenak, herrian irekitzen joan diren auzokonpostatze guneen bi-



Hamaika auzokonpostagune daude gure herrian.

USURBIL ZERO ZABOR

“Oraindik badira Usurbilen, organikoa konposta dezaketen sendiak”

dez. Datua, Usurbil Zero Zabor taldetik helarazi dute; Gipuzkoan 30.000 biztanletik gora ari dira autokonpostatzen. Usurbilen 630 bat sendi gutxienez ari dira organikoa konpostatzen. Usurbil Zero Zabor taldekoen esanetan, Gipuzkoan badira sortzen duten organiko guztia konpostatzen duten zenbait herri txiki; Orendain, Oresa, Altzo, Berrobi, Elduaien, Amezketa. Debagoienan Leintz-Gatzagan. Horiek salbu, Usurbil izango da autokonpostatze maila altuena duen udalerrria herrialde mailan.

Eta duela bi urtetik, modalitate berri bat ere zabaltzen ari da herrian: auzokonpostatzearena. “Duela bi urte sei sendi hasirekin hasi eta 2.000ra heldu gara Gipuzkoan”, berri eman dute UZZ-tik. Eta gehiago izango dira, auzokonpostagune berriak irekitzeko lagun-

tzak ematekotan baita Foru Aldundia. Hamaika auzokonpostagune ditu Usurbilek, toki desberdinetan barreiatuak. Eta laster, beste bi jarriko dira martxan; bat, udaletxe ondoran kokatuko baitute, eta bestea, Olarriondoko udal baratzaren alboan. Bi guneotan auzokonpostatzen aritzeko trebakuntza jaso dute azken egunotan, bai Olarriondoko bizilagunek, baita Kaxkoko hainbat herritarrek ere. Konpostatzen duten herritarren kopurua beraz, are gehiago haziko da hurrengo asteotan.

Baina maila hau beti hobetu liteke. “Jauzi garrantzitsua eman dugu baina oraindik ere eman genezake”, diote UZZ-tik. Herriak gune berde gehiago baditu, kontzientzia faltarik ez, eta oraindik badira Usurbilen, organikoa konpostatze dezaketen sendiak. UZZ-tik mezu argia haientzat guztientzat: “animatu!”. Eta eman izena noski, herrian martxan diren auto edo auzokonpostatze egitasmoetan. Urriaren 27an, frontoian konpostatzearen inguruan antolatu duten erakusketan, informazio gune bat jarriko dute Usurbil Zero

Zabor taldekoek. Organikoa konpostatzen hasi nahi duenak, bertan apuntatu ahal izango du.

“Ez du beste munduko misteriorik”

Egiteak emandako esperientzietatik ikasi dutenek diotenez, organikoa konpostatzea lan erraza eta sinplea da. “Ez du beste munduko misteriorik. Hemen egin dezakegun okerrenaren eragina, konposta hilabete bat lehenago edo geroago etortzea da”, diote UZZ-tik. Usurbilen lantzen den konposta kalitate handikoa dela diote. Eta onena, “hondakinen zikloa erabat ixten dugula. Norberak kudeatzen du erabat; sortu, landu eta emaitza lortzen da, autogestioa erabat betetzen da”. Eta zalantza duenak oraindik, galde dieaziola auzokonpostatzen dabiltzan geroz eta herritar gehiagori.

Atez atekoak sortu duen kontzientzia



“Ondo jokatzeko duenak eta zabor jokatzeko duenak ezin du berdin ordaindu”, dio Usurbil Zero Zaborrek.

Hondakin zati garrantzitsue-
na (organikoa) nik neuk kude-
atuko dut”, erabaki hori har-
tua dute Usurbilgo herritarren here-
nak, UZZ-tik gogorarazten dutenez.
Eta ez da kasualitatea. “Auto eta auzo-
konpostatzeak gora egin du nabar-
men, batez ere atez atekoa ezarri den
herrietan”, diote UZZtik. Atez ateko
bilketaren eraginkortasuna askoren
kontzientziak mugiarazi baititu euren
esanetan.

Bilketa sistema eraginkorra mar-
txan jarri, hondakin zati handiena
norberak tratatu eta berrerabili,
dena hondakina sortu den inguru-
ne berean. Usurbildarrak hiri hon-
dakinen zikloa udalerrian bertan
osatzeko bidea jorratzen ari dira.

Baina badira egitekoak ere. UZZ-
tik aurrera begira, zenbait etxeko lan
behintzat aipatzen dituzte; batetik,
gai honen inguruko datuak bildu-
ko dituen behategi baten premia
badela ikusten dute. “Datuak oso
modu erraz eta gaiztoan manipu-
latzen baitira. Behar genuke iturri
fidagarri bat, non datu horiek guz-
tiantzat berdinak eta baliagarriak
izango diren”, diote UZZ-tik. Eta nor-
berak sorturiko hondakinak trata-
tzeko, kasu honetan konpostatzen

duteneen ahalegina saritzeko ere
bidea egitea beharrezkotzat jotzen
dute; hobariak aplikatzea alegia,
organikoa konpostatzen duten herri-
tarrei. “Duela bi urte oso herri gutxi
ziren, bere gain hartzen duten ardu-
ra hori errekonozitzen zutenak. 3-
4 herri ginen, Gipuzkoan atez ate
ari ginenak. Gaur egun jada, 25 bat
herri ari dira hobariak aplikatzen.
2014ko ordenantzak ari dira azter-
tzen udalak; datorren urtean herri
gehiagok izango ditu autokonpos-
tatzearen hobariak”, iragartzen dute
UZZ-tik.

Ondo egiten duenari errekonozitu egin behar zaio

Eta horrek behar du etorkizuneko
bidea eta urrats gehiago eman behar
direla uste du bilguneak, “ondo egi-
ten duenak eta zabor jokatzeko due-
nak ezin du berdin ordaindu. Ondo
egiten ari den horri errekonozitu
behar zaio, justiziazkoa delako, eko-
nomia aldetik eta gaizki egiten due-
nak, ordaindu beharko du”.

Berrerabilpena sustatu edota
materiala ekoizten arduraren dutene-
kin urratsak ematea, prezio eta poli-
tika fiskaletan errekonozimendu
izatea, aurrera begirako beste lan ildo-
etako batzuk.

Aurtengoa, hirugarren edizioa

“Konpost Egunak” izenburupean
antolatu diren “Atez Atekoetik Zero
Zaborrera” jardunaldiak hiruga-
rren ediziora heldu dira aurten. Bai-
na aurrez gehiago egin dira:
2010: lehen edizioa, Kataluniatik
edota Italiatik etorritako adituen
parte hartzearekin.
2011: bigarren edizioa. Errauske-
taren gaia aztertu zen.
2012: ez zen jardunaldirik antola-
tu, Donostian ospatu zen Europa
mailako Zero Waste Kongresua
zela eta.
2013: “Konpost Egunak”.



2010ean antolatu zen lehen
edizioa.

Urriak 24 osteguna

■ 19:00 Mahai-ingurua adituekin,
Hernaniko Biteri kultur etxean.
Hizlariak eta gaiak:

-Joxemari Irazusta (Usurbil Zero
Zabor taldeko kidea): “Auzo-kon-
postaren egoera Gipuzkoan 2013ko
urrian”.

-Orkatx Goenaga (teknikaria Uro-
la erdian, Zero Zaborreko kidea
Tolosan): “Auzo-konpostatzaileak
lortzeko sustapen kanpaina des-
berdinak”.

-Imanol Biain (Oñati Zero Zabor
taldekoa, Natur eskulako langi-
lea): “Gune urbano trinkoetan auzo-
konpost guneak non, nolakoak?
Hautatzeko irizpideak”.

-Gorka Egia (Orendaingo alka-
tea): “Nola lortzen da herri oso bat
konpost egiten jartzea?”.

-Xabat Larrarte (Hernanin Atez
Atekoaren teknikari): “Autokon-
postatzen hasteko herritarrei eman
beharreko trebakuntzaren edu-
kia”.

-Jon Ander Galarraga (biologoa,
konpostaje teknikaria
Tolosan): “Egituretzailearen auke-
raketa”.

Urriak 27 igandea

■ 10:00-14:00 Konpostatzearen
inguruko erakusketa Usurbilgo
frontoian:

-Hondakin organikotik konposta
eskuratzeko prozesuaren infor-
mazioa.

-Munduko eta gertuko hainbat
esperientzia.

-Konpostagailu ezberdinen erakus-
keta.

-Konpost-motak ezagutu.

-Bakarka zein auzolanean konpos-
tatzen hasi nahi dutenentzako
izena emateko aukera.

-Usurbilgo auzo-konpost gune
batera bisita.

-Herrian auzolanean egindako
konpostaren banaketa, etxera era-
man nahi dutenentzat.

■ Erakusketarekin batera beste-
lako postuak ere izango dira: lore
salmenta, arrautza ekologiko-
en prozesua eta barazki ekolo-
gikoen postuak...

Antolatzaileak: Usurbil, Hernani eta
Gipuzkoa Zero Zabor.

Zinea euskaraz, hilero



“Amaren eskuak” pelikula eskainiko dute azaroaren 10ean.

Negu giroko igande arratsaldeetan, sartu Sutegiko auditorioak eskaintzen duen goxotasunera, aukeratu butaka gustukoena eta gozatu euskal zineaz, plan ezin hobe antolatu du eta Usurbilgo Udaleko Kultura Sailak azarotik martxora. Hilero, lehen hamabostaldian, euskal zineaz gozatzeko bi egun izango dira kultur etxean. Lehen igandean, arratsaldeko 17:00etatik aurrera, haurrentzako euskarazko filmak proiektatuko di-

tuzte. Sarrerak 3 eurotan izango dira salgai. Eta bigarren igandean helduentzako film txanda, 18:00etatik aurrera, 5 euroren truke. Hau guztia esan bezala, azaroan hasi eta martxora bitarte.

Euskal zinea emititzeko Udalak eginiko apustu honen baitan, badira tartean, estreinatu berri diren filmak; “Amaren eskuak” esate baterako. Azaroan 10ean ikusi ahal izango da Sutegin. Eta hilaren 3an, ekimen berri honetako haurrei zuzenduriko estreinako

proiektzioa; “Animal Channel”. Honatx, adin tartearen arabera sailkatuta, azarotik martxora eskainiko diren film izenburuak:

■ **Haurrentzat:** “Animal Channel”, “Blackie kanuto”, “Kiri-ku eta basapiztiak”, “Malutatxo”, “Ahmed, Alhanbrako printzea” filmak.

■ **Helduentzat:** “Amaren eskuak”, “Azken bidaia”, “Mugaldekoak”, “Sukalde kontuak” eta “Zorion perfektua” filmak.

80 urte eta sasoi ederrean

Denetarikoa une gazi-gozoz betirik egongo den ibilbidea osatu dute, eta hortxe ikusten dituzue, merezitako omenaldia jasotzen. Hilabete hasieran, Gure Pakea Elkartekoek 80 urte bete dituzten herritarrei Atxega jate-txean antolatu zien bazkari eguneko irudia duzue. Senide eta lagunez inguratuta pasa zuten eguna, 80 urte bete dituen herritar koadrilak.



Datorren astean, poesia errezitaldia gaztetxean

Zuzeneko musika eta hitzak biltzen dituen emanaldia antolatu du Usurbilgo Gaztetxeak, azaroaren 3rako, igandea. Gaztelaniaz izango den saioak “Concertino para orgánico y palabra” izena du. 19:00etan eskainiko da, Alkartasunako kooperatiba ohian. Sarre-
ra, 3 euro.

Esperientzia Eskolan izena emateko garaia

Gogoan izan, 50 urtetik gorako doako hezkuntza eskaintza honi loturiko saioak asteartero izaten direla, 16:00-18:00 artean Artzabal.

Izena emateko deitu Gizarte Zerbitzuetara, 943 377 110 telefono zenbakira edo idatzi, gizarte-zerbitzuak@usurbil.net helbidera.

Udajolaseko haurren arropa, NOAUA!n zain


Uztailean zehar Udalak eta NOAUA! Kultur Elkarrekin antolatuta, Udajolas aisialdiko ekimenen parte hartu zuten haurrek utzitako edo galdutako arropa, elkarteko egoitzan dugu. Hilabetez, NOAUA!n izango da. Gero, arropa berrerabiltzeko ontzira eramango dugu. Edozein argibideetarako deitu: 943 360 321.

Eskubaloi liburua salgai Lizardi, Laurok eta NOAUA!n

Usurbil Kirol Elkartearen 50 urteotako ibilbidea jasotzen duen liburua 15 eurotan salgai dago NOAUA!ko egoitzan, baita Lizardi eta Laurok liburu dendetan ere. Kirol bilgunearen hamarkada hauetako pasarteak, argazkiak, bitxikeriak, lekukotzak, lortutako garaipenak eta abar jasotzen ditu kalean den argitalpen berriak.



herritarrekin
martxan en marcha



 **Gipuzkoa**
BERRIA



Autobus zerbitzua hobetzeko prozesua

NOLAKO AUTOBUS ZERBITZUA NAHI DUZU?

Gipuzkoako Foru Aldundiak zurekin batera hobetu nahi du zerbitzua, eta horretarako 56 herritan bilera irekiak antolatu ditu. Internet bidez ere egin dezakezu zure ekarpena:

www.garraioahobetzen.net.

PARTE HARTU ETA IRABAZI

Parte-hartzaile guztien artean Mugi/Lurraldebus txartela kargatzeko 20 euroko bonoak zotz egingo ditugu.



Gipuzkoa
BERRIA

“Jendeak ezagutzen dituen anbulantzia horietaz aparte, bestelako zerbitzuak ere eskaintzen ditugu”

Igandekoa egun berezia izan zen DYakoentzat. Hilabete da Muna Lurrako egoitzan direla. Eta egoitza ez ezik, euren lanaren berri emateko aprobetxatu zuten igandean. Aitzakia horrekin, Nagore Maizekin aritu gara solasean. DYako ordezkaria da Usurbilen.

Ate Irekien Eguna ospatu zenuen igandean. Asmo nagusia, herriari egoitza berria ezagutaraztea zen, ezta?

Nagore Maiz. Bai, egoitza eta DYA beraren lana ere. Herrian zer nolako lana egiten duen DYAk, eta zein funtzio betetzen dituen. Mundu guztiak ezagutzen dituen anbulantzia horietaz aparte, bestelako zerbitzuak ere eskaintzen ditugu. Area soziala du DYAk, erreskaterako arlo ezberdinak... Eta hori dena herriari erakustea nahi dugu, DYAk dituen baliabide guztiak erakutsiz.

DYA ez baita anbulantzia soil bat. Besteak beste, badu funtzio pedagogiko bat. Ikastaroak eskaintzen dituzue.

Egia da, alor guztietan gero eta ikastaro gehiago ematen dira. Lehen sorospen ikastaro txikietatik hasi, bertako jendea formatzeko ikastaroekin jarraituz. Gure bolondresak hainbat tailer eta ikastaro jasotzen dituzte.

Anbulantzietan egoten den jendeaz aparte, erreskate tal-



Une honetan, 46 bolondres daude Usurbilen. Nagore Maiz da DYA elkarteko ordezkaria.

NAGORE MAIZ, DYA

“Toki erosoago bat daukagu orain. Zerbitzu gehiago eskaintzeko aukera ematen digu”

deetakoak daude. Erreskate horietan partehartzeko formazio bat jasotzen dute, gero lana ahalik eta modu onenean egin dezaten. Arlo ezberdinak lantzen dituzte: GPS ikastaroa, *todoterreno* ikastaroak, errepideko erreskatean kotxe mozketak nola egin... Bai maila teorikoan zein praktikoan, errealitatean horrelako gauzak egin behar direnean prest egon daitezten.

Aurreko egoitza zaharretik Muna Lurrako egoitza berriera pasa zarete. Aurrerapauso handia izan da, ezta?

Azkenean, areto horrek gauza asko ahalbidetzen dizkigu, bai Usurbilen bertan gaudenoi baita herriari ere, formakuntza ikastaro ezberdinak eskaini ahal izateko. DYako beste toki batzuetako kide batzuk hona etorriko dira ere, gure egoitzan formakuntza egokia jaso dezaten.

Egoitza berrian egin duzue hilabete bat. Akaso herritik urrunago zaudetela pentsa daiteke. Baina aukeran, baldintza askoz hobeto zaudete, ezta?

Bai, toki erosoago bat daukagu eta, Muna Lurra ere, bertatik bertara gaude. Zerbitzu gehiago eskaintzeko aukera ematen digu gainera egoitza berri honek.

Udalak DYari utzitako egoitza da hauze. Berotasun hori ere sumatzen duzue herrian, ezta?

Herrian bertan gaude eta edozein gauza behar dutenean, hortxe izaten gara.

Horiz jantzita egon edo kalez jantzita, herrian ibiltzen gara. Edozein momentutan jendeak laguntza behar badu eta gutako edonork laguntza emateko aukera badu, beti egongo gara prest.

www.noaua.com

USURBILGO ATARIA

Patri Jatetxea



K/nagusia 14. © 943 362 725

Otar-Goxo
Elkargaiak

Zubiaurrenea, nº2

☎ 943 36 55 81

20170 Usurbil

Usurbil Kirol Elkartea 50 urte

1963-2013

Dagoeneko salgai
dago Usurbilgo
eskubaloi taldearen
liburua!

15€

50 urteko ibilbidea
biltzen duen liburua
Laurok, Lizardi eta
Noaua! Kultur Elkartean
eskuratu dezakezu



NOAUA



ThyssenKrupp

Gazta usaina dario, hurrengo Tipi-Tapari

Lasaña, brotxetak, kroketak, pudina... Goxo askoa dena, pintxo formatuan dastatu ahal izango da azaroaren 3ko Tipi-Tapan. Gazta izango baita, ibilbide gastronomikoaren bederatzigarren ediziorako Txapeldun, Artzabal, Xarma, Bordatxo, Txirristra, Aitzaga eta Txiriboga tabernekin prestatuko dituzten mokadu berezi-tako osagai nagusia. Egun berean, 15:00etan egingo da 150 euroko erosketa balearen hurrengo zozketa. Xarma tabernan oraingoan.



Azaroaren 3an, Xarman egingo da 150 euroko erosketa bonoaren zozketa.

Andatza Mendi Taldekoen hitzorduak

Usurbil, Xoxote eta Debarekin lotu dituen asteburu pasaren ostean, urte amaierari begira dira Andatza Mendizaleen Kirol Taldekoak. Ekimen aldetik, hilabete oparoa dute aurrean. Lauzpabost astean behin egon ohi den irteera antolatuko dute azaroaren 10erako; datorren txangoak Bidarra eta Amaiur lotuko ditu.

Mendi Astea

Aldaketarik ez bada, azaroaren 27tik 30era Mendi Astea ospatuko dute. Proiektzio, emanaldi edota irteerekin osatuko dute mendizaleen urteroko hitzordu astea. Informazio gehiago: andatza.com

ONTZI ARINETAN PLASTIKODUN ONTZIAK, LATAK ETA BRIK-ak SOILIK



**INGURUMENA GUZTION ARDURA DA
BIRZIKLA DEZAGUN!**

Bizikletaren erabilera bultzatzeko azterlanaren berri emango da astelehenean

Udalaren enkarguz, Usurbilen bizikletaren erabilera sustatu eta errazteko lanke-ta egin dute Biziker, Mugikortasun Aholkularitzako Ander Irazusta geografoak eta Maria Pons arkitektoak. Azterlanaren emaitza, astelehenean 18:00etan emango dute ezagutzera Potxoenean. Bertaratzen diren herritarrek ekarpenak egin ahal izango dituzte.

Zein dira aurkeztera zoazten egitasmoaren ardatzak?

Ander Irazusta. Usurbilen bizikletaz zirkulatzeko baldintza eroso eta seguruak eskaintzen dituen bizikleta bide sare proposamen bat aurkeztuko dugu. Udalak bizikletaren papera garraribide gisa indartzeko aukera handiak direla sinesten du, aisialdirako eta kirola egiteko duen erabilera haratago. Gaur egun bizikletaz zirkulatzeko baldintza egokiak ez dira ematen Usurbilen, izan ere, bide sarea trafiko motordunaren beharrei begira pentsatu eta diseinatu izan da orain arte. Baina badira bizikleta lanera, ikastera, gestioak edo erosketak egitera joateko erabiltzen duten usurbildarrak. Honek aditzera ematen digu egungo bizikletaren erabilera maila potentzialki izan daitekeena baino askoz baxuagoa dela. Ezkutuko eskaera horri erantzuna emateko plangintza landu du gu beraz.



Plana ez dago erabat itxia. Herritarrek ekarpenak egiteko aukera izango dute.

ANDER IRAZUSTA

“Kaxkoa gainontzeko auzoekin lotzea ezinbestekoa izango da”

Bileran herritarrek zer nolako ekarpenak egin ahal izango dituzte?

Sarearen trazatuari dagozkionak izan daitezke, edota gure lanean antzeman ez ditugun beharren inguruak.

Egitasmo honekin ze erraztasun eskaini asmo dituzue?

Bidegorri edo bizikleta bide sare egoki batek segurtasuna, erosotasuna eta erakargarritasuna bermatu behar du bizikletaz egiten diren bidaietan. Beraz, ahalik eta zonalde eta ekipamendu gehien elkarlo-

tzen saiatu gara, ahalik eta bide motzenetik eta era seguruan. Zati batzuetan, gutxienean, bidegorria ibilgailu motor-dunengandik banandua egongo da eta gainontzekoetan partekatua izango da, beti ere beharrezko segurtasun baldintzekin. Horretarako hainbat bizikleta bide motak baliatu dira.

Herrian sustatu nahi da bizikletaren erabilera?

Gure proposamena Kaxkoan erdiratu da lehen fase honetan, baina Kaxkoa gainontzeko auzoekin lotzea ezinbestekoa izango da; zentzu horretan, hor dago Gipuzkoa mailako Bizikleta Bideen plangintza, berriki Aldundiak onartutakoa, eta Udalak duela urte batzuk eskatutako auzoen arteko loturen azterketa.

“Proposamen egingarria aurkeztuko dugu”

Ezaugarri egokiak al ditu Usurbilgo erdiguneak?

Ander Irazusta. Kaxkoak barne joan-etorri gehienak oinez egiteko tamaina eta distantzia egokiak ditu, baina distantzia horiek ibiliak izateko luzeegiak direnean bizikleta alternatiba ona izan daiteke, are gehiago Kaxko barruko distantzia laburrak dituzten desplazamendu asko autoz egiten direla kontuan hartuta. Bizikleta Usurbilgo mugikortasun sisteman integratzeko eredu berri bat proposatzen dugu, hau da, bizikleta galtzada autoekin partekatzea bilatzen dugu, beti ere modu seguru eta erakargarrian. Helburuetako bat oinezkoen espazioari kalterik ez egitea da. Kaxko trafikoa ezaugarri orokorrek asmo hau errazten dute (trafikoa- ren abiadura eta intentsitate baxuak), eta bestalde, asko laguntzen duen beste ezaugarri bat aipatu behar da: egungo galtzadak gain-dimensionatuak daudela, hau da, bizikleta txertatzeko espazioa eskaintzen dutela. Kaxkoak duen oztopo bakarra malda da, proposatutako hainbat soluzio ezberdinez gauditua izan dena. Beraz, proposamen egingarria aurkeztuko dugu, ia obra lanik behar ez duten soluzioak eka- rriaz.



txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

EROSKI/city

kale Nagusia 10, USURBIL
943 361182

Zuen
publizitatea
hemen

943 360 321
publizitatea@noaia.com

Zubieta, Endika Abril Txapelketako finalean



Finalean, billabonatarak izango dituzte aurkari. Txapelketak 50. edizioa beteko du aurten.

Baigorriren aurka 13-11 irabazi ostean, Endika Abril Errebote Txapelketako finalerako sailkatu dira zubietarrak. Finala Billabonan izango dute. Oraindik ordea zehazteke dago eguna eta ordua, beste finalerdi bat jokatzeko baitago. Zubietarrek finalean egoteko

gogor lehiatu ziren joan den igandean etxean, hiru ordu eta erdiko saioa izan baitzuten Baigorrikoen aurka.

Urte borobileen sailkatu da Zubieta finalerako, Endika Abril Txapelketak 50 edizio bete baititu.

Bazpiko txirrindulariak Burgos aldean ibili dira



Larunbatean Medina de Pomarren eta igandean Villarcayon lehiatu ziren ziklokrosean, kadete eta jubenilak. Xuban Errazkin usurbildarra ondoko irudian. Medina de Pomarreko podiumean bigarren postuan sailkatu zen.

Futbol partidak

Urriak 26 larunbata,
Haranen

09:30 Alebinak: Udarregi 5A.
10:30 Alebinak: Udarregi 6A.
12:00 Kadeteak.
16:00 Preferenteak.

Eskubaloi partidak

Urriak 25 ostirala,
Oiardon

20:00 Senior mutilak, 1. T
Usurbil K.E.-Donibane

Urriak 26 larunbata,
Oiardon

17:30 Kadete mutilak:
Usurbil K.E.-Elgoibar
19:15 Senior mutilak, 2 N.
Usurbil K.E.-Basauri

Nork bere papera aurkitzeko gonbita ATZEGItik

Urtero egiten duten sentsibilizazio kanpainaren baitan, aurtengorako, "ATZEGIn guztiok dugu gure papera. Aurkitu zeurea!" leloa hautatu dute, adimen urritasuna duten pertsonentzat oso garrantzitsua baita, "ezagutzen, baloratzen eta behar dutenean laguntzen dieten ingurune batean bizitzea. Askotan zailtasunak ez baitira sortzen adimen urritasuna izateagatik, ingurune ez egoki bat izateagatik baizik".

Sentsibilizazio kanpaina berria Hernaniko Biteri kultur etxean aurkeztu dute, ATZEGIko Hernani eta Usurbilgo taldeek. Adimen urritasuna duten pertsonak, senideak, elkarte kideak bildu zituen ekitaldiak, baita laguntza eskaintzen dutenak ere. Kanpaina berri honetako aldarrak dioen moduan, ATZEGIn bere papera aurkitu duten lagunak bertaratu ziren baita. Usurbilgo kasuan, Olarriondo jatetxeko lan taldea bertaratu zen ekitaldira. Azken 9 urteotan, adimen urritasuna duten herriarrentzako festa eguna antolatzen aritu baitira. Baita udal langile eta zinegotzi bana ere; Udaleko lan taldean lankide izan baitituzte adimen urritasuneko lagunak. Haien guztien laguntza eskertu zuten. Eta gainerakoentzat, gonbita argia da; "Senide bazara ala ez, urritasunik baduzu ala ez, denbora libre asko edo gutxi izan, edonongoa izanik, gizon edo emakume, ikasketak eduki ala ez... Zuk ere aurkitu dezakezu zure papera ATZEGIn!".

Laguntzeko, mila modu

Laguntzeko mila modu daude; sare soziale-tako edukiak partekatuta, sentsibilizazio ekimenak bideratuta, adimen urritasuna duen pertsona batekin geratuta, bestelako ekimene-tan euren parte hartzea sustatuta, ekonomikoki kolaboratuta, boluntario izanda...

14.000 lagun baino gehiagok osatzen dute ATZEGI. Hemen, elkartetik helarazi dituzten Gipuzkoa mailako zenbait datu orokor:

- 2.035 familia (adimen urritasuna duten 2.130 pertsona).
- 2.733 kolaboratzaile.
- 9.223 atzegizale.
- Elkarte oinarria guztira: 14.086 pertsona.
- Informazioa: atzegi.org/aurkituzurepapera



Usurbil FT, lehiarako prest



Aurreko astean zuzendaritzako kideen hitzak jaso genituen, oraingoan futbol taldeen berri eman nahi dugu.

Denboraldi berria estreinatu du Usurbil FT-k. Lanean ditu jada futbol talde guztiak. Regionalak, neskak, kadeteak... Kirol urte luzea dute aurretik. Mailaz maila, futbol talde bakoitzaren egoeraren erreposoa lerroetan.

2013-2014 denboraldiari ekin dio Usurbil FTk, besteak beste, jokalaria mordoa bilduko duen kadeteen taldearekin. Talde baterako jokalaria gehiegi, eta bi osatzeko nahikoa ez zituztela, ataka horretan aurkitu da klubeko zuzendaritza. Egoera honen aurrean, **F-11 eta areto futboleko taldea osatu dituzte kadeteetan**. Jokalari batzuk

talde bakar bateko fitxa izango dute, beste batzuk bietakoak. Hortik aurrera, "beharren arabera" moldatuko dira. Zuzendaritza jakitun da, areto futboleko jokalaria batzuk gaizki sentitzen direla, "beraiek egin nahi duten hori ezin dutelako egin; futbol 11 alegia". Horregatik, erronka, talde bakar bat balitz bezala funtzionatzea izango da. Entrenamendu saioak denek batera egiten dituzte, eta neurketei dagokienez, "ordutegiak moldatzen saiatzen gara, batzuk besteei ikusi eta elkar animatzera joan daitezten". Iaz igoera lortuta, ohorezko mailan dira aurten klubaren historian lehen aldiz. Ilusioz dira, nahiz jakin urte

zaila izango dutela. "Polita ere bai, Antiguoko eta halako taldeak pasako baitira Usurbildik", diote Usurbil FT-tik.

Futbol taldeen erreposoaren segituta, **infantilen taldea** Manu Urbietak gidatzen jarraituko du. Ikastolarekin elkarlanean eskola kirolaz arduratzen da baita, eta monitoren formazioa eskaintzen du. "Herriko 10 monitore izango ditugu aurten, guretzat altxorra direnak", adierazi dute Usurbil FT-tik. Infantiletara itzuliz, mutilen taldea osatu da bakarrik aurtengorako. **Neskak kadeteetara** pasa baitira. "Ez genuen ahalmenik taldea aurrera ateratzeko eta Hernanirekin akordio batera

heldu gara. Hango eta hemen go neskekin Hernani-Usurbil izeneko taldea osatuko da aurten, lehenengo mailan kadete nesketan. Etxeko partidak tartekatuko dituzte; bat Hernanin jokatuko dute, bestea Usurbilen. Hemengo 7-8 jokalaria daude. Harremana mantendu nahi dugu eurekin, datorren urtean bueltatzeko aukera izan dezaten", berri eman dute futbol klubetik. 15 urte beteta, datorren urtean, jokalaria faltan dagoen seniorren taldean jokatzeak aukera izango baitute. Eta hartara, denboraldia berrikuntzekin baina jokalaria faltarekin hasi duen senior nesken taldea indartu ahal izango dute.

Nesken futbol taldea, jokalaria bila

Seniorretan momentuz, taldea sendotzeko pauso berri bat eman berri dute; tituludun entrenatzailea dute. Jokalariak gogotsu daude denboraldi berri honetan, animuak helarazten dizkiete Usurbil FT-tik. Aipatu moduan, jokalaria faltan dira eta, 17 dira eta "kopuruz justu daude". Eta Usurbil FT-tik gogorazten dutenez, "taldea mantendu behar dugu, kadete neskak hurrengo urtean hona etorri nahi badute. 7-8 neska direnez, horiek emangoliotekete bultzada". Horregatik, **herriko neskak futbolean** jokatzerantz

zuzendutuzte. Astearte eta ostiraletan entrenatzen dute Haranen, 19:30-21:00 artean. Hara agertu eta izena eman, ez da besterik egin behar.

Beste hainbeste **Futbol Eskolan** kasuan. 33 lagun parte hartzen dabilta aurten, 31 mutil eta 2 neska. "Beste urteekin alderatuta, behar egin du batez ere LH 5. mailako urteko ikasle kopuruak", berri eman dute Usurbil FT-tik. Horregatik, Futbol Eskolan apuntatzera deitzen dituzte LH 3,4 eta 5. mailako ikasleak. Ostiraletan entrenatzen dute Haranen, 17:15-18:15 artean. "Lasai

hurbildu izena ematera", luzatu dute gonbita.

Justu samar osatu duten beste taldea, 12 jokalarirekin, **alebinena** da, "talde polita" edozein kasutan. "Iaz Añorgatik, Donostiatik etorri ziren batzuk eta lagundu ziguten. Aurten ere kanpotik ekartzen saiatzen ari gara, baina ez dugu lortu oraingoz", adierazi dute Usurbil FT-tik.

Ohorezko mailan

Hala jarraitzen dute **jubenilek**. Jokalari aldaketekin ekin diote denboraldi berriari. Bere garaian Ostadarre-

ra joandako kide batzuk Usurbil FT-ra bueltatu baitira. Pozik zuzendaritza, "beraien kabuz itzuli direlako", hala nahi izan dutelako. Bestalde, kategoriaz igo diren lehen urteko jokalaria dezente izango ditu taldeak. Taldea utzi eta preferente mailara joan denik ere bada; hiru jokalaria guztira.

Preferente mailan baita aldaketa dezente. Baina aurreko denboraldiko helburu bera; hobetzen joatea. "Ahal dela, goiko postuetan lehiatzea", Usurbil FT-tik ohartarazi dute.

tietan, 19 urtetako esperientzia, 646717676

Neska gazte esperientziaduna, heziketa premia bereziak dituzten ikasleei klase partikularrak emateko prest. 688 661 997 (Garbiñe).

Neska gazte bat eskaintzen da umeak zaindu eta klase partikularrak emateko. Telefonoa: 660 778 314 (Maddi)

21 urteko neska usurbildar euskaldun bat, haurrak zaindu edota klase partikularrak emateko LH-n nahiz DBH-n. Esperientziaduna. 666 041 971 (Ane)

Jardineritzako lanak egiten ditut txukun eta modu onean: 677 443 140 (Iñaki).

18 urteko mutil bat lanerako prest. Baratzean laguntzeko, morroi lanetarako, tabernan lan egiteko... 626 735 354.

Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. 636929990.

Helduak zaindu edota etxeko lanak egiteko. Orduka edo interna moduan. 608 774 999.

Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. Telefono zenbakia: 609 632 030.

Zerbitzari edo sukaldari laguntzaile moduan lan egingo nuke. 650 032 454.

Esperientzia handia, arduratsua den neska eskaintzen da garbiketa lanetarako. 618 030 296.

Ontziak garbitzeko edo sukaldari laguntzaile gisa lan egingo nuke. 677 108 568

Emakume esperientziadun bat umeak edo pertsona helduak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Claudia. 663 117 579.

Gizonezko bat eskaintzen da, jatorriz euskalduna, edozein lanetarako. Helduak zaindu, sukaldean lagundu edo baserriko lanetan aritzeko. 627 206 451.

Emakume bat eskaintzen da egunez, adineko pertsonak umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko, ostalaritzarako eta garbiketakegiteko. 673 445 903

Emakumea eskaintzen da, orduka etxeko lanak egiteko. 662 247 324

Umeak zaindu arratsalde edo zerbitzari gisa lan egingo nuke asteburuetan. 638 894 845.

Lan eskaintzak

Edadeko pertsona bat zaindu eta etxeko lanak egiteko, interna moduan, emakume bat behar du. 664149612

Emakume euskaldun eta esperientziaduna behar da Astigarragan, 6 hilabeteko haur txiki bat zainitzeko eta etxeko lanak egiteko. Goizez, astelehenetik ostiralera. Harre-

manetarako: 635742503

Mapfre aseguruetxearen bulegorako Adminstrari-Komertziala behar da. Ezinbestekoa da herriko izatea. Bidali kurrikuluma-ullatei@mapfre.com

Emakume bat zaindu eta etxeko lanak egingo dituen interna behar dugu. Arduratsua den adineko emakume euskalduna hobestuko da. 943 300518 (M^a Angeles)

BESTELAKOAK

Izotzetan ibiltzeko patinak salgai. 35-38 talle, merkeak. 649 482 775.

Ohe altu bat salgai. Mutilena eta koloretsua. Tel. 649 482 775.

Mountain Bike bizikleta bat salgai. Orbea Alma H60 29ER markakoa. Gizonezkoana. Berriberri dago. Prezioa: 500€. Tel. 666 373 150.

Aurtengo eta hemengo babarrunak

salgai, artoarekin batera eginda. 637974994

Telebista salgai, Sony markakoa. Egoera onean eta prezio bikaina, 80 euro. 653 014518

Pedalik gabekobizikleta bat utzi nuen frontoian, ostiralean edo larunbatan. Decathlon-ekoa, kolore urdina, gorria eta txuria. 605 730 816.

Kolore more eta gris duden neskenzikobizikleta berria (Coluer) lapurtu ziguten abuztuaren 31 nartatsaldez, tren geltoki inguruan. Aurkitzen baduzu, deitu 689 769 282

Aginagako artoa salgai 687706363

Teniseko raketa bat aurkitu da Erreka Txiki parkean. 943 371 044.

Usurbilgo baserri batean hazitako oilasko eta untxiak saltzen ditugu. 652 725 022.

Botilei tapoiak jartzeko enkortaxadora bat salgai, 100 euro. Asado-

re elektriko bat, 100 euro. 943361235

Erosi gasolina sorgailu elektrikoak, berria erabili gabe, 80 euro. 689880561

Hemengo intxaurra erosiko nuke, deitu 634 409 888

Erromeri talde baterako, tronpetak eta tronboi jole bila gabilta uda honetako kontzertuetan hasteko. 660214740

Ezkontzetan, festetan edo antolatzen dituzuen ospakizunetarako Dj lanak egiteko prest. 615 713 204 edo djlarra@usurbil.com

Usurbil eta inguruetan belardiak hartuko nituzke, belar ondua egiteko. 667406010.

2. eskuko josteko makina bi salgai. Modu onean. 943 36 32 01.

Su egurra salgai. Haitza eta Pagoa. 667 232 300.

Artzai txakurkumeak Orbea arrazakoak salgai 637 974 994

Ezkontzetan abesteko talde bokal bat nahi? 665 745 071 (Iñaki).

Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoa. Maketa bat entzungai daukat. 690784113.

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patinetak, esekigailuak, haurren kotxe kapotak, bi kanpin denda handi, bizikleta estatikoa, ispi-lua, liburuak, haur jolasak... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Astelehenetik ostiralera: goizez, 10:15-13:00 artean; arratsaldez, 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean.

Telefono interesgarriak

Udala	943 371 951	Abere-Landare Babeslea	943 376 650
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Taxia (Angel)	607 928 770
Udalzaingoa	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz)	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada)	943 370 148	Eusko Tren	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea	697 919 516	LurraldeBus	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894
Diputazioa - Basetxea	943 361 215	Anbulategia	943 362 013
Bake Epategia	943 372 336	Oa botika	943 376 076
Udarregi Ikastola	943 361 216	Iturralde botika	943 363 395
Haur Eskola	943 374 061	DYA	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola	943 364 600	Gurutze Gorria	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra	943 372 077	Emergentziak	112
Hastapen tailerrak	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta	900 840 111 / 016
KZgunea	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163
Oiarde Kiroldegia	943 372 498	Gipuzkoa Donostia Kutxa	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Banco Guipuzcoano	943 370 006
Etumeta AEK Euskaltegia	607 609 379	Banco Popular Español	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa	943 365 249	BBVA	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza	943 368 770	Caja Rural Kutxa	943 368 842
Gure Elkarte Zahar Egoitza	943 371 751	Argindarra - Iberdrola	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza	943 366 340	Gas naturala - Naturgas	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia	943 361 239	Telefonica	1004
NOAUA! Kultur Elkarte	943 360 321	Euskaltel	900 840 840

Goardiako farmaziak urriak 24-azaroak 3

Osteguna 24 GIL Kale Nagusia 24. Lasarte

Ostirala 25 URBISTONDO San Franzisko 1 Lasarte

Larunbata 26 URBISTONDO San Franzisko 1 Lasarte

Igandea 27 URBISTONDO San Franzisko 1 Lasarte

Astelehena 28 ACHA-ORBEA Hipodromo etor. 6. Lasarte

Astearte 29 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola kalea, 9 Lasarte

Asteazkena 30 ORUE Jaizkibel 2. Lasarte

Osteguna 31 DE MIGUEL Kale Nagusia 32 Lasarte

Ostirala 1 ACHA-ORBEA Hipodromo etor. 6. Lasarte

Larunbata 2 ACHA-ORBEA Hipodromo etor. 6. Lasarte

Igandea 3 ACHA-ORBEA Hipodromo etor. 6. Lasarte

* LARUNBATETAN, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00etatik 13:30era.

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ Garikoitz Aldabe. Perkaiztegiakalea 8 (Antziola). Hernani. 943 336 022 22:00 - 09:00

Agenda urria

25 ostirala

- **TELP tailerra** hitzaldia Gemma Sanginesen eskutik. 19:00etan Potxoenean.
- **Elkarretaratzea, presoek eskubideen alde** 20:00etan Mikel Laboa plazan.

26 larunbata

- **TELP tailerra** Potxoenean. 9:00-13:00/15:00-19:00.
- **Kantu-jira** 19:00etan Mikel Laboa plazan.

27 igandea

- **Konpost Eguna** frontoian. Erakustaldiak, azoka... 10:00-14:00etara.

"Euskararen errelatoa" hitzaldia, ostegun honetan Sutegin

Joxe Manuel Odriozola (Altzo, 1948) Pasaiko Udal Euskaltegian euskara irakasle izan da 28 urtez. Soziolinguistikarekin lotutako hainbat saiakera eta iritzi artikulua ere argitaratu ditu. Potxoeneako hitzaldi-solasaldi honetan, "euskararen errelatoa" gaiaren inguruan ariko da hizketan.

- Eguna: urriak 24 osteguna.
- Ordua: 19:00.
- Tokia: Potxoenea.
- Antolatzailea: Nafartarrak elkarte.



Joxe Manuel Odriozolak eskainiko du hitzaldia.

Datozenak

Amari eskainitako erakusketa Sutegin

Amari omenaldi modukoa egin dio TXO! ize-neko kolektibo barruan dagoen artista talde batek. Besteak beste, usurbildar baten eskultura bat ikusteko aukera dago; Pelexen artelana, poema hunkigarri batekin lagundua. Amari eskainitako artelana hau ere, erakusketa amaieran bertan geratuko dena. Inaugurazio egunean hain zuzen, duela urte gutxi zendu zen amaren omenez eta amak maita zuen inguruan antolatu zutela erakusketa zioen Pelexek. Esker hitzak izan zituen udalarentzat, baita Txo! Kolektiboko kideentzat ere. Udalaren izenean Mertxe Aizpurua alkateak, erakusketara bertaratu eta artelanez gozatzeko gonbita luzatu zien herritarrei.

Bisita egunak eta orduak dituzue ondokoak.

- Ostegunak/ostiralak: 18:00-20:00.
- Larunbatetan: 12:00-14:00/18:00-20:00.
- Igandetan: 12:00-14:00.



Azaroaren 17ra arte zabalik izango da erakusketa.

Larunbat honetan, kantu-jira

Ikasturte berriko bigarren saioa izango da larunbat honetakoa.

- 19:00etan, Mikel Laboa plazan.



Igande honetan, Konpost Eguna frontoian

Konpostajea nola egin, Gipuzkoako estatistikak, esperientziak, konpostagailuen erakusketa, konpost-mota desberdinak, auzo konpostatzen hasi nahi dutenentzat izena emateko mahaia, e.a. izango dira. Baita, herrian dauden zenbait auzo-konposta-gunetara bisita gidatua egingo da.

Lore salmenta, arrautza ekologikoen prozesua eta barazki ekologikoen postuak izango dira. Hala nahi dutenentzat, egindako konpostarekin, poltsak banatuko dira.

- Konpost Eguna. 10:00etatik 14:00etara frontoian.

JE JON ELORZA
IGELTSERITZA OROKORRA
 Obrak eta erreformak
661 804 688
 San Esteban 5, boxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

USURBIL AUTOAK
 ·TAILERRA ·KARROZERIA ·KOTXEEN SÁLMENTA

 **SUSTITUZIO KOTXEA DOAN!!!**

zerbitzu ofiziala
 Zumartegi industrialdea  **943 36 10 79**

GOLDWELL
ELUMEN



i l e a p a i n d e g i

mistoa

Koloraziotan teknika berriak eta iraunkorrak

Zubiaurrenea 4, ☎ 943 361 951

Auto Guria

Auto Konponketa

Pre I.T.V.

Marka guztiak

Osinalde, 9 • USURBIL (Gipuzkoa)
☎ 943 363 298 • Faxa: 943 363 862

Konpost Egunak Atez Atekotik, Zero Zaborrerantz III. Jardunaldiak

Urte gutxitan herritar kontzientziadun minoritarioen jokabide militante izatetik kasik modako fenomeno bihurtu da konpost egitea Gipuzkoako eta Nafarroako herri askotan. Milaka familia ari dira bai norbere lur-muturrean edo bai udalak lagatako lurrean auzolanean beren hondakin organikoak konpost bihurtzen.

Urriaren 24an, osteguna / Hernanin

19:00 Biteri kultur etxean, mahai-ingurua konpostaz. Hainbat adituek aztertuko dituzten gaiak:

- Autokonpostaren eta Auzo-konpostaren egoera Gipuzkoan 2013ko urrian.
- Autokonpostatzaileak lortzeko sustapen kanpaina desberdinak.
- Gune urbano trinkoetan auzokonpost-guneak non, nolakoa? Hautatzeko irizpideak.
- Nola lortzen da herri oso bat konpost egiten jartzea?
- Autokonpostatzen hasteko herritarrei eman beharreko trebakuntzaren edukia.
- Egituratzaila edo materia lehorraren aukeraketa

Urriaren 27an, igandea / Usurbilen

10:00-14:00 Usurbilgo frontoian konpostatzearen erakusketa.

- Hondakin organikotik konposta eskuratzeko prozesuaren informazioa
- Munduko eta gertuko hainbat esperientzia
- Konpostagailu ezberdinen erakusketa
- Konpost-motak ezagutu
- Bakarka zein auzolanean konpostatzen hasi nahi dutenentzako izena emateko aukera
- Usurbilgo auzo-konpost gune batera bisita
- Herrian auzolanean egindako konpostaren banaketa, etxera eraman nahi dutenentzat

Erakusketarekin batera bestelako postuak ere izango dira: lore salmenta, arrautza ekologikoen prozesua eta barazki ekologikoen postuak...

Antolatzaileak:
Gipuzkoa Zero Zabor, Hernanin Zero Zabor eta Usurbil Zero Zabor

Laguntzailea:  Urtbilgo Urtalo






Ofizioen Gida



URDAINTZI
eraikuntzak

649 43 54 75 / 76
943 36 72 64
urdaintzi@euska.net

· ERAIKUNTZAK · OBRAK
· BERRITZE LANAK

Andoni Errazkin

Xukin
igeltseritza orokorra

663 08 76 71
943 24 34 65

Barne eta kanpoko lanak

Jose Aizpurua
Unanue eraikuntzak S.L
teillatuak eta fatxadak

943 37 38 79
620 80 01 86

Kale Nagusia 14, Behea (atzekaldea), LASARTE-ORIA

Josue
Igeltseritza

Fax: 943 24 34 60
Atallu pol. atallu, 28
20170 - USURBIL

606 37 21 05

Igeltseritza orokorra

Errazkin S.L.

igeltseritza orokorra
943 240 176 eta 649 435 470

Oztaran auzoa 33, URNIETA



ANORCA TXIKI S.L
KRISTALDEGIA

· komertzial instalazioak
· beira bikoitza · segurtasun beirak
· dutxa-itxiturak eta irristailuak

943 37 17 33- 610 45 93 45

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA



Enrique Alonso
ITURGINTZA
GASA-BEROKUNTZA

Oro har libratze-lanak
TB kamerakin hodi eta tximinien azterketa
BAIMENDUTAKO INSTALATZAILEA

659 675 283

LATAILLADE
ITURGINTZA

Gasa, berogintza,
klimatizazioa, instalazioak
eta mantenimendua

943 363 348 - 609 888 021

Javier Orbegozo
GASA-BEROKUNTZA

659 602 789

erreka txiki 13, 3. esk

JOSEBA
ARANGUREN
ITURGINTZA

943 83 00 72
659 88 39 12

Bainu eta sukalde
erreformak, gasa,
berokuntza

Josetxo Ikatzeta

687 951 225



**ESKAIOLA
PLADUR**

Joxean Elorza -USURBIL
699426042



**Antonio
URRUZOLA**
AROSZTEGIA

Tel/Fax: 943 376 415
Asteasuain Industrialdea, 3

BARRENETXE
Salsamendi Arregi, Imanol
AROSZTEGIA

943 362 664
Barren Etxe kalea ZUBIETA



izagirrelektrizitatea@hotmail.com

izagirre
Elektrizitatea

Apdo. 37
943 36 50 95
609 06 81 11
943 37 65 87

Goiz Argi etxea n° 37
Kale Zahar Auzoa

ARGILAN
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

629 272 859
943 361 380

BORDA-BERRI 5, baxua USURBIL